



• DEIALDIAREN OINARRIAK •

Bultzatzaileak dira:



Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren “**Katapulta Tour Gipuzkoa**” formatu txikiko musika- eta arte eszenikoen proiektuei laguntzeko **Programak** bederatzigarren edizioan parte hartuko duten artistak hautatzeko deialdia ireki du. Edizio hori Gipuzkoan egingo da, 2024an. Deialdiak lehentasunezko 3 helburu ditu:

- Gipuzkoako talentua musikan eta arte eszenikoetan nabarmentzea eta bultzatzea —bereziki, gazteriari—.
- Gipuzkoako eszena dinamizatzen laguntzea, klubei eta antolatzaileei lagunduz.
- Prestakuntzaren eta saiakeraren alde egitea, profesionalizazio handiagoa lortzeko bide gisa.

Hartzaileak eta estiloa:

Deialdia artista profesional berriei edo erdi profesionalei zuzenduta dago, beren karrera musikan eta arte eszenikoetan profesionalki garatzeko interesa dutenei, eta musika-proposamenak (Pop, Rock, Folk, Electrónica, Hip-Hop eta antzeko estiloak) eta formatu txikiko arte eszenikoen proposamenak (mikroantzerkia, bakarrizketak, performancea eta magia) onartzen dira.

Proposamenek artisten jatorrizko lanak edo artistentzat sortuak izan behar dituzte.

Proposamenak arlo desberdinetako teknikari eta profesionalek osatutako epaimahaiak hautatuko ditu.

Hautatutako proiektuei honako hauek eskainiko zaizkie:

- **Lau emanaldi** Gipuzkoako hainbat gune edo jaialditan. Horietako bat Kutxa Fundazioaren Kluba aretoa da.
- **400 euro garbiko konpentsazio ekonomikoa jarduketagatik** (kontratazio kostua aparte).
- Artista edo **proiektua sustatzeko bideo** bat grabatzea.
- Tabakaleran Kutxa Fundazioaren instalazioetan **entsegu-espazioak** doan eta partekatuta erabiltzea (prestasunaren arabera).

Edizio honetan berrikuntza gisa, **deialdian izena eman duten proiektu guztiei** doan parte hartzeko aukera emango zaie komunikazio eta sustapen, eszenografia, produkzio, ekonomia eta fiskaliterako **prestakuntza programan**. Programa hori baldintza hauetan garatuko da:

- Prestakuntzak edukiera mugatua izanen du eta izena eman beharko da.
- Plazak inskripzio ordenaren arabera esleituko dira.
- Programa osoan parte hartzeko hautatzen diren proiektuei plaza bat gordeko zaie proiektu bakoitzeko, nahitaez joan beharrekoa. Parte hartu nahi duten proiektuko gainerako kideek inskripzio orokorra egin beharko dute. Inskripzioaren hurrenkeraren arabera esleituko da, eta libre egotearen mende egonen da.

Hautatzeko irizpideak:

Aurkeztutako proposamenen artean 10 proiektu hautatuko dira, irizpide hauen arabera:

- Gipuzkoan errolatuta dauden artistak eta 30 urtetik beherakoak lehenetsiko dira.
- Beren kalitateaz gain, artista parte-hartzaileen ibilbidea eta proiektzioa ere baloratuko dira.
- Proposamenen hizkuntza-eskaintzan eta parte-hartzaileen generoan oreka ezartzen saiatuko da.

Proposamenak **2023ko azaroaren 13tik abenduaren 4ra bitarte aurkeztu beharko** dira [esteka honetan](#).

Hautatutako proposamenen izenak urtarrilaren 26a baino lehen argitaratuko dira prentsaurrekoan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren webguneetan.

Parte-hartzaileek Programan parte hartzeak dakartzan betebeharrekin klausulak onartu beharko dituzte. (zehazteke)

Emandako datu pertsonalak, irudia eta ahotsa barne, programaren sustatzaileei lagako zaizkie: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa Fundazioa, eta Buenawista Prolleckziom's Kultur Elkartea. Parte-hartzaileek baimena ematen dute identifikazio-, ahots- eta irudi-datuak, artxibo grafikoak doan erabiltzeko, informazio, sustapen eta kontserbazio historikorako, web orrietan, sare sozialetan eta beste komunikabide batzuetan argitaratzeko, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxa Fundazioaren eta Buenawista Prolleckziom kultura-elkartearen artxibo historikoan parte hartzeko ere. Parte-hartzaileen irudiak datu pertsonaltzat hartuko dira eta izena emateko formularioan aurkeztutako gainerako datu pertsonalen tratamendu bera izanen dute.

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek onartzea.